

ESKOLAGUNE



Ekoetxea Urdaibai

Zein da giltza?

Lehen Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza

Ordubeteko "escape room" motako abentura-jolas baten bidez, ikasleek Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) ezagutuko dituzte, Ekoetxea Urdaibairen kanpoaldeko erronka fisiko eta mentalak ebazten dituzten bitartean. Sormena, arrazoiketa eta lankidetzaren erabiliz, iraunkortasunari eta gizakiak ingurunean duen eraginari buruz ikasiko dute. Gainera, Urdaibaiko Ekoetxearen ordubeteko erakusketetara bisita eginez, etorkizuna arriskuan jarriko ez duten ohiturak garatzearen garrantziaz arituko dira. Azken erronka: planeta salbatzea.

Prest zaudete erronkarako?